

Asaldaturik

TXILLARDEGI



HORIXE

da hitz egokia: *«asaldua»* gora doa estatusismoaren lakioan harraputa dauden abertzaleen artean. Inkestak hasiak dira plazazentzen, eta PSOE izango omen da nagusi; eta hurrengo lehendakaria, PSOE-ialista omen dator. Ardanzaren aulkian, hitz batez, Jauregui izango omen dugu. Eta hurrengo 'hururko' zuzendaria, hiru pertsona hauek osatuko bide dute: Jauregui, Recalde, eta Buesa.

Jauregui nabarmenki ari da postu horretarako prestatzen: euskaraz gero eta hobetaren du, zalantzarik gabe: beste 'abertzale' (?) erdarakoi guztiak lotsatzeko moduan.

Hitz batez: «heldu duk» Lehendakaritzara Prietoren biloba! Norbiki sorka hau? Jatorriz, bestela, Jauregui nafaritarra izanik, aukera galantak dauzka garaile irteko. «Operación Mario» delako horrek, ondorio nabarmenak izan ditzake aurki.

Eta, jakina, jeldikide oso oso kezkatuta daude.

Buesak eta Recaldek pentsatzen eta senditzen dutena garbi dago: España. Indalecio Prieto, Múgica Herzog eta Damborenearen eskutik etorri dira politikaren mundura. Euskaraz gutxiesten dute, are gorroto ere bai. Euskal Herrian ez dute inolaz ere nazio zapalduarik ikusten. Berorien proiektua, hitz batz. España da. Bai sendimenduz, eta bai eginkizun gisa.

Beraz: eginda dago frogia. Estatutismoak, abertzaleen kontrako hankatrabia sistemati-koak, ezker abertzalearen aurkako paranoiak, Nafarroarekiko uzkurkeriak, hona eraman dituzte espainiar legetasunaren defentsa arrotuan barena sartu direnak.

Eta harritzokoa ez da. Harrigarria, are miraria ere, beste hau litzateke: Euskal Herriaren etsaiaren eskuetan gure erremalak utzteak, abertzaletasuna indartzera eramatea.

PSOE heldu da Gasteiza. Iruñean bazegoen. Orain, zer?

EZLN

INAKI SEGUOLA



BIZIAN

hitzaldi bakarra eman dut, eta hura ustea-ko-bean, halabehar misterio-koak hartaraturik. Tokia: Mexikoko Toluka hiriko Kultur-etxea. Eguna: 1989ko azararen 8a. Gaia: euskara. Aditzaileak: indio beltzaren begi-ekel mordoxka bat, otomi, nahua, mataltzinka eta beste. Han nonbait ibiliiko da argitaraturik; ez dut egundo ikusi. Dena eskatzerik ez dago, eta indio haiek, zer egingo zaio, kontzientziatuak ziren, erdaraz ikusiak. Horretxek elkartu gintuen; baina ez, gure mihiolari internazionalista gehienentzat bezala, Erdarak, baizik haien eta nere euskararen gainetik erdara berbera izanak.

Kontua da bihurtu egin direla, hanka-joko eta esku-joko latza atera dutela: ez dut pedante-kiago esan nahi. Jakin bezain laster, nere orduko aditzaile haietxek eta haiekin hitzegindakoak etorri zaizkit gogora. Askat du horrekin: ez dut entzun ere egin nahi kazetari, in-telektual, ikertzaile, soegile eta gainerako adituen txorakeria burutsurik. Behekoak goi-koen kontra atera dira: lurra dela, bizia dela, betikoa dute arrazoi, eta arrazoi dute beti, izen-neruerik gabeko eta ideia gezurrezko engainatu gabeko herri-jendearen arrazoi be-rierekoa. 'Ejército-k' etsaiaren antz handiegia du. 'Zapatista-k' *ista* eta *ismo* guzien gaitza: bestenaz Zapata indio naturala zen, hizkuntzaz nahaituduna. Litekeena da gerora tratuz, akordioz eta panderoz denak buruxkila exekutib-otuen mende aniltzea ere. Baina ixo: bego etorkizun beltza etorkizun. Eta 'Liberación Nacional' itsusi hori? Gehientsuenek bestela uste badute ere, Nazioaren atzaparpetik librat-zea izan behar luke horrek, Nazioa desegitea, ez besterik.

Hil bedi Nueva Españaren alaba Mexiko! Bizi bedi indio bihurtuaren amorrual!

EKAIZA


Heriotza iragarritako baten kronika

'Santa Flor, loreen balada': Euskal Herrikoa izateko arrotz samarra den eslogan hori ez da nahikoa izango enpresa bertute-itsu honen sortzaileek agindutakoari eusteko. Hamabost hilabete-ko jardunaren ondoren, bost hilabetez noraezan ibilita (langu-bezia partziala, sozietatearen hutsiegiteak, presio politikoak) eta 92-93rako aurkustitako sar-rreretan % 70 baino gutxiago lor-tuta, arrandia handiz abiarazitako SAE honek porrot-aitorpena egin eta ia langile guztiak kaleratu di-tu. Nolako kamusada hainbat he-dabidek baratzeazintza lan bikain gisa, turismorako garrantzi han-dikoa, azaldu zutenarentzat.

Egia da partaideei (bankuak, Urruñako udala, Kontseilu Na-gusia eta Akitania) arkezututako proiektuaren testuak zehazten zuen: 'arrakasta egindakoaren kalitateari, horren originaltasu-nari lotua dago'.

Originaltasunari dagokionez, ezin esan daiteke François Girard lehendakari zuzendari nagusiak hori izan ez duenik, 6,4 milioi li-berako dirulaguntzak xahutu eta 12 langileko sozietateari 2,7 mi-lioi liberako zorra ezarri baitio koalitatiboak izan beharrean as-takeriak diren lan batzuk egiteko.

HEMEROTEKA




Inflazioa.

'Florella', esate baterako, egin-dako bi erakusketak bakarrek 500.000 liberatik gorako kostua izan baitute oso diru sarerra gutxi lortuz.

Une honetan, 'egoera gaindi-tzeko' beste biderik ez da ikusten berriro ere diru publikora jotzea baino, hain zuzen horren erraz eskura daitekeenera senatore ba-rean, Kontseilu Nagusiko lehen-dakariaren eta Pirinio Atlantia-rretako ekonomiarazoen 'ardura' duenaren abala izanez gero. Eta zergatik, era berean, ez egin ez-jakinarena zorren aurrean, berri-ro abian jarri Ekonomia Mistoko Sozietate gisa baratzeazintza en-presa pribatu batekin eta Urruñako udalarekin batera esaterako...

Poulou jaunak, bere aldetik, badirudi ez diela amore eman na-hi eskaerei. Egia da 'bere' udalak dagoeneko 4 milioi liberako maileru garantzatu bat sakrifika-tu duela merkataritza porrot honetan. Izan ere, oraindik lehe-



GALLEGO & REY / DIARIO 16

nengo errenboltoaren zain dago. Are gehiago, esaten da Girard gestorearen hurbilketek 1,5 mi-lioi liberako kostu gehigarriko e-karriko dietela Urruñako zer-gadunei.

EDITORIALA

DEIA

Chiapasko oihua

Chiapasko oihua, Mexikoko hego-ekialdeko indigena eta nekazariaren altxamendua suizida mundu osoan entzun da zalaparta izugarria ateraz.

Mexikoko Gobernuaren eta duela hainbat hamarkadatik hona gobernuan dagoen Alderdi Iraultzaile Instituzionalaren (PRI) irudi ondo zaindua kalte-tuta gelditu da ustegabeko ma-txinada horren ondorioz.

Egun gutxitan, ondo homitu-tako Armada mexikarrak suntsi-

tua izango du matxinada gune hori. Baina dena ez da lehen be-zala geldituko 'Askapen Nazio-nalerako Armada Zapatista' de-ritzonaren altxamenduz geroztik.

Lurralde horretako indigena eta nekazariak txirotasunaren, Gobernu federal eta bertako ka-zikieen aldetik jasaten dituzten errepresio eta injustiziaren aurka protesta egiteko hartu dituzela armak esaten dute.

Oso erraza da Mexikoko Go-bernuarentzat altxamenduen erantzukina atzerriko eragileei, sekta ebanjelikoek edo askape-nare teologiarren predikatzaleei leporatzea. Are Guatemala edo El Salvadorreko gertuile ere.

Baina matxinada horren egiazko arrazoiak herriaren gain-ontzeko lurraldeetako ekonomi hazkunde bera izan ez duen ko-munitate hori mendentan ahaztuta egon izana dute oinarri.

ALBERTO GARCIA MARRDER

UZENDARIARI

Goi mailakoa iduritzen zait ekimen hau eta prozesua benetan argi eta garbia izaten bada benetako aurrerapauso sozial eta politikoa.

Beste aldetik egun berean ikusten dut Be-lateko tunelaren eta dagokion errepidearen proiektu berria, eta gaian sartu nahi izan gabe, ez baita hori nere gogoa, egiaztatu ahal dut defenditu egin dugun printzipio garrantzi-atsu baten presentzia: kasu honetan errepide berria egokitu nahi izan zaio lur-eremuari, eta ez lur-eremua errepideari, aurreko kasuetan eza-gutu izan dugun bezala. Lurralde malkartsue-tan erabili beharreko malgutasuna ikusi dut proiektuan: gehieneko pendientea (% 8), bi-hurbungueen gutxieneko erradioa (250), tunela erabiltzen da eruz, bi norabidetako errepide-gehi hirugarren karril laguntzailea, bazterbi-ede estutzen dira beharrezko bada...

Bai herritarren partaidetza bideratzear-

na eta baita mendien zehar egin behar di-ren azpi-egituretan eraiki printzipio mailguak edukitzearena. Gipuzkoarako autobidearen proiektuari hasiera-hasieratik leporatu genizkion akats sakonak ziren.

Badirudi orduko lanak zerbitaerako balio izan duela eta oraingi bi kasu hauetan behin-zat, prozedimendu eta irizpide berriak jorratu dira. Hor sentitu izan dut satisfakzioa.

Oharra: zergatik ez du Nafarroako Gober-nuak antzerako prozedimendurik aurrera era-maten Itoizko urtegiari dagokionean? Partai-detzarako guneak eraikitzea ezinbesteko me-tenua iduritzen zait Gobernu edo Parlamen-tu batek honelako erabaki eztabaidagarriak eta behin betez gero atzeraziekoak hartzen di-tuenean.

INAKI AZKONA Iruñea

Poztutzeok ere bai baditugu

Pasa den urtarrilaren hamarrean egunkariak irakurtzea ustegabeko satisfazioa sentitu izan dut, eta bi alde ezberdinetatik gainera, izan ere horrenbeste berri triste eta etsipengar-riren artean poztasuna sorrarazi didaten bi albiste zekarren egunak.

Alde batetik, eta Arrasaten, aian hasten ziren NIP direlako gune partehartzaileak. Bertan eroldan gaineko zozketaz aukeratu-ko herritarrek berri diren txosten eta ase-soria teknikoaren laguntzaz, Maltzaga-Urbina azpi-egituraren proiektu garrantziatsu bezain eztabaidagarriaz beren iritzia emango dute. Jaurlarietarako binkulantea izango ez den iritzia, bainan pixu handikoa dudarik gabe.

GAIA JARRITA

Muguerza Memoriala



Herri bat harro sentitu ohi da motiboa daukanean, elgoibartarrok hala gaude gaur krosa hurbildu denean. Ego-toki da antolatzaille ta herriaren babesean; nahiz ta afrikarrak nagusi izan nahiko denbora lizean, ea Martin Fiz garaile degun Juan Mugerzaren krosean (Bir).

GERMAN MEABEBASTERRETXE

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

ODK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URKIA

Gerentzia: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTELLO OTAMENDI

Zuzendariordea: LIZUETA ETXEHARRETA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitate: PUBLICITAS

Capitan Haya 1.2a 28020 Madrid / w: 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilloko / 20160 Lasare-Oria / w: 37 15 45 / Fax: 36 54 93

Egilea soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna.

16-1 / 2010 Donostia / w: 46 99 22 / Fax: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Leher. / 01005 Gasteiz / w: 23 38 72 / Fax: 23 38 73

Nafarroa: Iruñea, 20-1. Leher. / (Iruñetik dorrea) / 31011 Iruñea / w: 17 80 78 79 / Fax: 17 80 77

Bizkaia: Zabaltzu Enparantza, 2-1. Lehera. / 48003 Bilbao / w: 410 40 46 / Fax: 410 37 15

Lapurdia / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1 / 503 Posta kutxatila, / 64100 Baiona / w: 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11